

CONTRAT D'ENGAGEMENT
RÉPUBLICAIN DES ASSOCIATIONS ET
FONDATIIONS BÉNÉFICIAINT DE
SUBVENTIONS PUBLIQUES OU D'UN
AGRÉMENT DE L'ÉTAT

> DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK EDO TA
ESTATUAREN ONESPENA DUTEN
ELKARTE EDO FUNDAZIOEN
ERREPUBLIKA ENGAIAMENDU
KONTRATUA

L'importance des associations et des fondations dans la vie de la Nation et leur contribution à l'intérêt général justifient que les autorités administratives décident de leur apporter un soutien financier ou matériel. Il en va de même pour les fédérations sportives et les ligues professionnelles. L'administration, qui doit elle-même rendre des comptes aux citoyens, justifier du bon usage des deniers publics et de la reconnaissance qu'elle peut attribuer, est fondée à s'assurer que les organismes bénéficiaires de subventions publiques ou d'un agrément respectent le pacte républicain.

> Elkarrekin eta fundazioek nazioaren bizitzan duten garrantzia eta ororen onerako egiten duten ekarpena kontuan hartuz, administrazio agintariak diruzko edo materialezko sostengua ematen diete. Berdin gertatzen da kirol federazioekin eta liga profesionalekin. Administrazioak berak ere eman behar dizkie kontuak herritarrei eta frogatu behar du hala diru publikoak nola eman lezakeen ezagutza ongi erabili dituela eta, hartara, ziurtatu behar du dirulaguntza publikoak edota onespenez bat jasotzen dituzten erakundeek errepublika ituna betetzen dutela.

A cette fin la loi no 2021-1109 du 24 août 2021 confortant le respect des principes de la République a institué le contrat d'engagement républicain.

> Xede horretarako, 2021eko abuztuaren 24ko 2021-1109 Legeak, Errepublikaren Printzipioen betetzea indartzekoak, Errepublika engaiamendu kontratua ezarri du.

Conformément aux dispositions des articles 10-1 et 25-1 de la loi no 2000-321 du 12 avril 2000 relative aux droits des citoyens dans leurs relations avec les administrations, le présent contrat a pour objet de préciser les engagements que prend toute association ou fondation qui sollicite une subvention publique ou un agrément de l'État. Ainsi, l'association ou la fondation « s'engage (...) à respecter les principes de liberté, d'égalité, de fraternité et de dignité de la personne humaine ainsi que les symboles de la République (...) », « à ne pas remettre en cause le caractère laïque de la République » et « à s'abstenir de toute action portant atteinte à l'ordre public ».

> 2000ko apirilaren 12ko Administrazioekiko Harremanetan Herritarrek dituzten Eskubideei buruzko 2000-31 Legearen 10-1 eta 25-1 artikuluek diotenari jarraikiz, kontratu honek zehaztu nahi ditu Estatuari dirulaguntzaren bat edota onespenez bat eskatzen dion elkarte edo fundazio orok hartzen dituen engaiamenduak. Hartara, elkarte edo fundazio hori «askatasun, berdintasun, haurridetasun eta gizakiaren duintasunaren printzipioak betetzera engaiatzen da (...), bai eta Errepublikaren ikurrei begiramena erakustera (...)» eta «Errepublikaren izaera laikoa zalantzan ez jartzera» eta «ordena publikoa kaltetzen duen ezer ez egitera».

Ces engagements sont souscrits dans le respect des libertés constitutionnellement reconnues, notamment la liberté d'association et la liberté d'expression dont découlent la liberté de se réunir, de manifester et de création.

> Engaiamendu horiek, betiere, Konstituzioak onartu askatasunak errespetatuz hartzen dira, bereziki elkarte eskubidea eta adierazpen eskubidea eta, haiei jarraikiz, biltzeko, manifestatzeko eta sortzeko eskubideak.

ENGAGEMENT No 1 : RESPECT DES LOIS DE LA RÉPUBLIQUE

> 1. ENGAIAMENDUA: ERREPUBLIKAREN LEGEAK BETETZEA

Le respect des lois de la République s'impose aux associations et aux fondations, qui ne doivent entreprendre ni inciter à aucune action manifestement contraire à la loi, violente ou susceptible d'entraîner des troubles graves à l'ordre public.

> Errepublikaren legeak betetzera beharturik dira hala elkarteak nola fundazioak, eta ez dute egin behar, ez eta egitera bultzatu, legearen aurka argi eta garbi doan inolako ekintzarik edo indarkeriazko edota ordena publikoa larriki kaltetu lezakeen inolako ekintzarik.

L'association ou la fondation bénéficiaire s'engage à ne pas se prévaloir de convictions politiques, philosophiques ou religieuses pour s'affranchir des règles communes régissant ses relations avec les collectivités publiques.

> Onuradun elkarte edo fundazio hori engaiatzen da sineste politiko, filosofiko edota erlijiozko ez baliazera kolektibitate publikoekiko harremanak gidatzen dituzten ororen arauetaz libratzeko.

Elle s'engage notamment à ne pas remettre en cause le caractère laïque de la République.

> Bereziki, Errepublikaren izaera laikoa zalantzan ez ematera engaiatzen da.

ENGAGEMENT No 2 : LIBERTÉ DE CONSCIENCE

> 2. ENGAIAMENDUA: KONTZIENTZIA ASKATASUNA

L'association ou la fondation s'engage à respecter et protéger la liberté de conscience de ses membres et des tiers, notamment des bénéficiaires de ses services, et s'abstient de tout acte de prosélytisme abusif exercé notamment sous la contrainte, la menace ou la pression.

> Elkartea edo fundazioa bere kideen eta hirugarren pertsonen –besteak beste, bere zerbitzuen onuradunen- kontzientzia askatasuna errespetatu eta babestera engaiatzen da, eta ez du gehiegizko proselitismo ekintzarik eginen, bereziki bortxaz, mehatxuz edota hertsatuz eginikorik.

Cet engagement ne fait pas obstacle à ce que les associations ou fondations dont l'objet est fondé sur des convictions, notamment religieuses, requièrent de leurs membres une adhésion loyale à l'égard des valeurs ou des croyances de l'organisation.

> Engaiamendu horrek ez du kentzen sinestean, bereziki erlijiozkoen, gaineko xedea duten elkarte edo fundazioek beren kideei erakundearen balore edota sinestean aldeko atxikimendu zintzoa eskatzea.

ENGAGEMENT No 3 : LIBERTÉ DES MEMBRES DE L'ASSOCIATION

> 3. ENGAIAMENDUA: ELKARTEKIDEEN ASKATASUNA

L'association s'engage à respecter la liberté de ses membres de s'en retirer dans les conditions prévues à l'article 4 de la loi du 1er juillet 1901 et leur droit de ne pas en être arbitrairement exclu.

> Elkartea engaiatzen da elkartekideek 1901eko uztailaren leheneko legearen 4. artikulua aurreikusi baldintzetan elkartea uzteko duten askatasuna errespetatzera, bai eta elkartetik bidegabeki kanporatuak ez izateko eskubidea ere.

ENGAGEMENT No 4 : ÉGALITÉ ET NON-DISCRIMINATION

> 4. ENGAIAMENDUA: BERDINTASUNA ETA BEREIZKERIA EZA

L'association ou la fondation s'engage à respecter l'égalité de tous devant la loi.

> Elkartea edo fundazioa legearen aitizineko ororen berdintasuna errespetatzera engaiatzen da.

Elle s'engage, dans son fonctionnement interne comme dans ses rapports avec les tiers, à ne pas opérer de différences de traitement fondées sur le sexe, l'orientation sexuelle, l'identité de genre, l'appartenance réelle ou supposée à une ethnie, une Nation, une prétendue race ou une religion déterminée qui ne reposeraient pas sur une différence de situation objective en rapport avec l'objet statutaire licite qu'elle poursuit, ni cautionner ou encourager de telles discriminations.

> Bere barneko funtzionamenduan nola hirugarrenetik harremanetan, tratamendu bereizkeriarik ez egitera engaiatzen da sexuaren arabera, sexu joeraren arabera, genero identitatearen arabera, etnia bateko, nazio bateko, arraza delako bateko nola erlijio bateko kide izan edo izan ustearen arabera, non bereizketa horiek ez diren egoera desberdintasun objektibo baten gainekoak eta elkarreak duen xede zilegiarekin loturik; engaiatzen da ere halako desberdinkeriak ez zurrizera edota sustatzera.

Elle prend les mesures, compte tenu des moyens dont elle dispose, permettant de lutter contre toute forme de violence à caractère sexuel ou sexiste.

> Ditu bitartekoen arabera, sexuzko indarkeria mota ororen edo indarkeria sexista ororen aurka borrokatzeko neurri guztiak hartuko ditu.

ENGAGEMENT No 5 : FRATERNITÉ ET PRÉVENTION DE LA VIOLENCE

> 5. ENGAIAMENDUA: HAURRIDETASUNA ETA INDARKERIARI AITZINA HARTZEA

L'association ou la fondation s'engage à agir dans un esprit de fraternité et de civisme.

> Elkartea edo fundazioa haurridetasun eta jendetasun izpirituan aritzera engaiatzen da.

Dans son activité, dans son fonctionnement interne comme dans ses rapports avec les tiers, l'association s'engage à ne pas provoquer à la haine ou à la violence envers quiconque et à ne pas cautionner de tels agissements. Elle s'engage à rejeter toutes formes de racisme et d'antisémitisme.

> Elkartea engaiatzen da, bere jardunean, bere barne funtzionamenduan eta hirugarrenetikiko harremanetan, inoren aurkako herra edota indarkeria ez sorraraztera eta halako jokabideak ez zuritzera. Arrazismo eta antisemitismo mota guztiei uko egitera engaiatzen da ere.

ENGAGEMENT No 6 : RESPECT DE LA DIGNITÉ DE LA PERSONNE HUMAINE

> 6. ENGAIAMENDUA: GIZAKIAREN DUINTASUNAREN BEGIRAMENA

L'association ou la fondation s'engage à n'entreprendre, ne soutenir, ni cautionner aucune action de nature à porter atteinte à la sauvegarde de la dignité de la personne humaine.

> Elkartea edo fundazioa engaiatzen da gizakiaren duintasunaren begiratzeari kalte egin liezaiokeen ekintzarik ez egitera, ez sostengatzera eta ez zuritzera.

Elle s'engage à respecter les lois et règlements en vigueur destinés à protéger la santé et l'intégrité physique et psychique de ses membres et des bénéficiaires de ses services et ses activités, et à ne pas mettre en danger la vie d'autrui par ses agissements ou sa négligence.

> Hala bere kideen nola bere zerbitzuen eta jardunen onuradunen osasuna eta osotasun fisiko nola psikikoa babesteko indarrean diren lege eta arauak betetzera engaiatzen da, bai eta bere egitateen bidez edo utzikeriaz arituz inoren bizitza arriskuan ez ematera.

Elle s'engage à ne pas créer, maintenir ou exploiter la vulnérabilité psychologique ou physique de ses membres et des personnes qui participent à ses activités à quelque titre que ce soit, notamment des personnes en situation de handicap, que ce soit par des pressions ou des tentatives d'endoctrinement.

> Engaiatzan da ere bere kideen eta, zeinahi gisan bere jardunetan parte hartzen dutenen ahultasun psikologiko edota fisikoa ez sortu, ez atxiki ez eta baliatzera ere -bereziki ahalmen urritasun egoeraren bat dutenena- hala presioen bidez nola doktrinatzeko saioen bidez.

Elle s'engage en particulier à n'entreprendre aucune action de nature à compromettre le développement physique, affectif, intellectuel et social des mineurs, ainsi que leur santé et leur sécurité.

> Engaiatzan da, bereziki, ez egitera adingabeen garapen fisiko, afektibo, adimeneko edota soziala, ez eta haien osasuna eta segurtasuna ere, arriskuan jar litzakeen ekintzarik.

ENGAGEMENT No 7 : RESPECT DES SYMBOLES DE LA RÉPUBLIQUE

> 7. ENGAIAMENDUA: ERREPUBLIKA IKURREN BEGIRAMENA

L'association s'engage à respecter le drapeau tricolore, l'hymne national, et la devise de la République.

> Elkartea engaiatzan da frantses banderari, nazio ereserkiari eta Errepublikaren ikurburuari begiramena erakustera.

Fait àn egina, le (a)n,

Nom du représentant de l'association, cachet de l'association, signature

> Elkartearen ordezkariaren izena, elkartearen zigilua, sinadura